

Mozio hau aurkezten dugu, Nafarroan D ereduan ari diren irakasleei gure babesa eta estimua agertzeko.

Nafarroako Gobernuaren zentzugabekeria berri bat: D ereduan ari diren irakasleen kriminalizazioa.

Justuki Nafarroa osoan D eredua aldarrikatzen ari den honetan eta matrikulazioak goranzko joera duelarik, Nafarroako Gobernua, bere lehendakaria buru duela, Guardia Zibilaren ustezko txosten bat hartuta, adierazpen iraingarriak egin ditu, D ereduko irakasleen izen ona desprestigiatzeko. Aipatu gainera D modelo honetan bakarrik ikasten ahal direla ziurtasunez Nafarroan dauden bi hizkuntzak, euskara eta gaztelania.

Erabat baztertzen dugu komunikabide batzuk hartu duten intoxikazioaren bidea, interesatuak bai dira gaur egun pil pilean dauden gaiak estaltzeko, jakitera; LOMCE ren inposaketa, Hezkuntza departamenduaren murrizketak, sexu bereizketa indarrean daukaten zentruak eta hauekin dituzten konbenioen defentsa, (gehienak Opus Deikoak), etabar.

Oroitarazi nahi dugu Hezkuntza Departamenduko ikuskaritza sailari dagokiola zerbitzu ona emateko ardura eta ez zaiola inoiz irakasle bateri inolako expedienterik ireki doktrinamendu saiakerarengatik eta ez dagola ere bakar bat ere martxan.

Mahai gainean jartzea irakasleak gainbegiratu behar direla, beraien lan pedagogikoa egiterakoan, aberrazio juridiko eta moral bat da.

Hezkuntza komunitate oso bateri egiten zaion eraso da eta sorgin eraso honek 1936 -ko maisuen zerrenda beltzetara garamatza.

Honengatik Udaletxe honek:

- 1.- Bere errekonozimendua eta babesa erakusten dio D ereduko irakaslegoari eta irmoki baztertzen du edozein kriminalizazio saiakera.
- 2.- Salatzen du Barcinaren Gobernuko manipulazioa bere inguruko komunikabideen

laguntzarekin.

3.- Bozketa honetan ateratzen den emaitza Nafarroako Gobernuari eta hedabideei bidaltzea adosten du.

Etxarri Aranatz, 2014ko urtarrilean



Etxarri Aranatz